

## Aitaren pitokeriak



### **Aitaren pitokeriak**

Jatorrizko izenburua: *Sh\*t My Dad Says*

Egilea: Justin Halpern

Itzultzailea: Uxue Alberdi

Argitaratze urtea: 2011

Argitaletxea: Alberdania

### MIKEL GARMENDIA

"Zintzoki mintzatuz, mesede kaskarra egin diot beharbada literaturari nire liburuarekin", aitortzen digu Justin Halpernek berak, "The New York Times"-en zerrendetako 10 salduenen artean kokatu den *Aitaren pitokeriak* liburu bitxiaren egileak. Bitxia diogu, sailkaezin samarra baita Halpernek aitaren ateraldiak Twitterren sartzen hasi eta denbora gutxian izandako egundoko jarraitzaile piloak hartaratura argitaratutako liburu hau, telebistako serie izatera ere iritsi dena.

Kalean dago eztabaida: arinkeria bat hala ekimen iraultzaile bat? Aitortzekoa da, nik uste, zer pentsatua behintzat ematen dutela aita autoritario baten jarrera umorearen ikuspegitik heldu izanak (kontsebadoretzat ere jo genezake alde horretatik) eta aitak berak semeari amaiera aldera egiten dion aitortenak. Eztabaidarako puntu polita litzateke konparatzea F. Kafkak bere aitarenganako izan zuen jarrera –hainbatek, hala nola A. Monterrosok, E. Vila-Matasek..., kritikatu izan dutena– eta J. Halpernek erakusten diguna.

Ezin ukatu, bestalde, umorezkoa dugula liburu, umore estatuabatuarrezkoa, esango nuke, halakorik esatea badago. Ikustekoa –eta konparatzekoa– litzateke beste herrialde bateko idazle batek ariketa bera eginez gero, aitaren –edo amaren– ateraldiak jaso eta argitaratzea, alegia, zer emaitza aterako litzatekeen, ikusteko baitago oraindik lan honen itzulpenek jatorrizkoak bezainbateko arrakastarik duten, nahiz eta euskarazko honetan bederen, Uxue Alberdiren itzulpenak oso ongi eutsi dion jatorrizkoaren estilo bizi-arinari. Hobeto aztertuko du, ziurrenik, soziolinguista edo psikolinguista batek obra hau, umorearen nolakoari, gizarte-ereduaren aurreko jarrerari... erreperatuz. Estimatzekoa litzateke, esate baterako, soziolinguista edo psikolinguista batek baloratzea ea zenbateraino den liburu hau balioak bizitzeko forma berri bat edo proposamen berri bat. Hona, adibidetarako, aitaren aholku umoretsu horietako bat, aztertzea proposatzen dugun horietakoa:

*Selektibitateaz*: "Gogoratu azterketa bat baino ez dela. Kaka egiten baduk ez dik kakazaharra haizenik esan nahi. Behin hau argituta, ez ezak kakarik egin. Nahikoa garrantzitsua duk".

Zerbitzatua dugu eztabaida.